



ANDOAINGO UDALA



## **Udal gobernuak PNVri erantzun nahi izan dio hondakinen gaikako bilketaren auzia dela eta**

“Baliteke egia izatea PNVk urtebete damakiela neurri hau eskatzen, baina gogoratu behar dugu sei urte zeramatzala ukatzen”

Udal gobernuari ez zaio ezustean iritsi PNVko udal taldeak hondakinen gaikako bilketaren inguruan igorri duen prentsa oharra; areago, atzo burutu genuen aurkezpenaren gonbita baztertu zuten momentutik espero genuen. Udal gobernuak agerraldi batera gonbidatu zituen edukiontzi grisaren aldeko jarrera erakutsi zuten alderdiei; aldiz, PNVk bertan parte hartzeari uko egin zion “ez dugu beharrezkoa ikusten” erantzunez. Noski, PNVk eskubide osoa du kontsideratzen dituen ohar guztiak bidaltzeko, baina horrek ez du esan nahi guztiz zorigaitzokoak uste ditugun baieztapen batzuk pasatzen uzteko.

Baliteke egia izatea PNVk urtebete damakiela neurri hau eskatzen, baina gogoratu behar dugu sei urte zeramatzala ukatzen; iazko uda ondoren neurri honen defendatzaile sutsu bilakatu ziren, eta horrek asko poztu gintuen, baina testuingurua ikusita, ez zen ez momentua ez tokia termino horietan jarduteko. Azaltzen gara:

PNVren arabera, horrenbestekoa zen momentu hartako urgentzia, orain baino hilabete batzuk lehenago egingo luketela ezarpena. Horrek suposatuko luke Udalak gastuen 100% hartu beharko litzukeela beregain. Momentu hartan Tolosaldeko Mankomunitateak aholkatu zion Udalari edukiontzi berrien esleipenera itxaroteko, momentu hartan prozesuan baitzeuden; egia da horrek hilabete batzuk atzeratu dituela inplantazioa, baina aldiz, horri esker, Mankomunitateak edukiontzien kostuaren 100% hartuko du beregain (edukiontzi gris, hori eta urdinarenak, baita edukiontzi marroiarenak hauek berri behar diren neurrian), eta baita edukiontzi grisaren itxituraren %40ko kostua ere.

Alegia, PNVk proposatutakoak aurrera egin izan balu 100.000 euroko inbertsioa suposatuko lioke Udalari, eta aldiz, orain itxituren kostuaren %60ari bakarrik egin beharko dio aurre. Denbora honetan froga pilotoa aurrera eraman ahal izan dugu hiru auzoetan, birziklapen tasak %65era arte gora egin duela ziurtatu ahal izan dugu eta berme gehiago ematen dituen eta pila gutxiago gastatzen dituen itxitura frogatu ahal izan dugu, eguzki-panel bidez kargatzen baitira.

PNV alderdikieriaz eta elektoralismoz jokatu du gai honekin; aurreko agintaldian egin zuen eta baita orain ere. Alabaina, ez dugu horregatik ez planifikaziorik ez eperik aldatuko aurreikusita ditugun proiektuetan.

*Andoainen, 2018ko urriaren 11n*

